

## AHOLKUEN TXARTELA

**Babestu zure historia<sup>1</sup>****Helburuak:**

- Garrantzitsua al da interneten gure anonimotasuna zaintzea? Egin dezagun gogoeta hori.

**Denbora:** 10 min

**Nola egin:**

**Aholku-txartela** diseinatuz, gauza bat lortu nahi dugu: ikasleek berek egitea gogoeta ea zer aukera dauzkaten eskura, interneten edukiak ez daitezen edonola zabaldu, hedapen hori mugatzeko. Ondoren, aukera horiei aholku-itxura emango diete, eta kartel edo txartel batean jasoko, taldeko gainerako kideen artean banatzeko. Aholku batzuk, hauek izan daitezke, adibidez:

Mugikorrean eta sare sozialetan, **kontaktuen zerrenda mugatuta** edukitzea, hots, benetan ezagutzen dugun jendea bakarrik edukitzea, konfiantzazkoak. Zer da gure lagunaren laguna? Bada, gure ezezaguna. Eta beste lagun birtual bat, online joko baten bidez bakarrik ezagutzen duguna? Hori ere ezezaguna da. Eta beste bat ere bai, ezagutzen omen gaitu, sarean gurekin bikain portatzen da, baina ez dakigu nor den: hori ere ezezaguna da.

Sare sozialetan "**kontu pribatuak**" **erabili**, gure kontaktuek soilik ikus dezaten partekatzen duguna (Instagramen eta Twitterren adibidez; Facebooken ez baitago horrelako aukerarik, baina antzeko zer edo zer lor daiteke pribatutasun-aukerak konfiguraturaz).

**Sare sozialetako pribatutasun-aukerak konfiguratzea**, alegia, lehenespenez, kontaktuek bakarrik ikusi ahal izatea guk partekatzen duguna; kanpotik egiten diren bilaketak mugatuta egotea (adibidez, Google edo Bing); eta erabiltzaileen edo erabiltzaile-taldeen artean aukeraketa bat egitea, gure gauzetako batzuk bakarrik ikusi ahal izan ditzaten.

---

<sup>1</sup> Internet Segura for Kids (IS4K). 2.0 Eskola Jardunaldien Programa "Zure informazioak asko balio du". Egokitua